

Itsas hondoko meatzaritza baimentzeko lehen pausoa eman dute Norvegian

Zientzialarien eta ingurumen-erakundeen aholkuen aurka, Norvegiako Legebiltzarrak itsas ondoa arakatzea baimendu du, meatzaritzarako aukerarik ote duen aztertzeko. Gobernuaren esanean, jarduera hori beharrezkoa da auto elektrikoaren baterietarako eta beste gailu elektroniko batzuetarako funtsezkoak diren mineralak lortzeko, hala nola kobaltua eta manganesoa. Alabaina, zientzialariek ohartarazi dute ekologikoki kalte itzulezinak eragingo lituzkeela.

Oraindik ez da ondo ikertu zer ondorio dituen ur sakonetako meatzaritzak itsas ekosistemetan. Egin diren lanek, dena den, garbi erakusten dute kalteak oso larriak izan daitezkeela.




Norvegiako itsasoan ur sakonetako meatzaritza baimentzeko lehen pausoa eman dute. ARG.: georgemoga/CC-BY-NC.

Oraingoaz, 281.000 km² arakatzeko baimena eman du Gobernuak, eta beste bozketa bat beharko da erazteko baimena lortzeko. Nolanahi ere, zientzialariek garbi dute ezinezkoa dela jarduera hori aurrera eramatea ingurumenean kalterik eragin gabe. Horrez gain, aurrekari arriskutsutzat jo dute, beste herrialde batzuek ere antzeko asmoak baitituzte. ●

Alzheimerraren bost aldaera identifikatu dituzte

Alzheimerraren bost aldaera biologiko aurkitu dituzte. Eta litekeena da aldaera bakoitzak tratamendu desberdina behar izatea. Are gehiago, litekeena da hori izatea probatu diren sendagai batzuen eraginkortasun txikiaren arrazoia.



Amiloide-plakak alzheimer gaixotasuna zuen pertsona baten garuneko lagin batean. ARG.: Jensflorian/CC BY-SA 3.0.

Ikertzaileek likido zefalorrakideoko 1.058 proteina aztertu dituzte alzheimerra duten 419 pertsonatan. Eta ikusi dute bost aldaera biologiko daudela. Esaterako, lehenengo aldaeraren ezaugarri nagusia da amiloidearen ekoizpena handitzen dela. Bigarren motan, berriz, hesi hematoentzefalikoa asaldatu egiten da, eta amiloidearen ekoizpena eta nerbiozelulen hazkuntza murriztu.

Ikertzaileek azpimarratu dute aurkikuntza garrantzitsua dela sendagaiak ikertzeko. Izan ere, botika batzuek balio dezakete aldaeraren baterako, baina ez besteetarako. Adibidez, amiloidearen ekoizpena inhibitzen duten medikamentuak egokiak izan litezke ekoizpen hori handitzen den aldaeratarako, baina kaltegarria izan liteke amiloidearen ekoizpena txikitzen den kasuetarako. Eta gauza bera gerta liteke albo-ondorioak izateko arriskuarekin ere. Hor-taz, hurrengo pausoa litzateke ikertzea medikamentuek zer eragin duten aldaera bakoitzean. ●